

Maiatzaren Lehena - Langileok martxan eskuBIDEAK aktiBATUZ!

Langileok martxan gara, EskuBIDEAK aktiBATUZ, Euskal Herrian prekarietate^xlea garaitzeko. Iazko Maiatzaren Lehenean LABetik genion ez genuela hazkunde ekonomikoko fase berri hau sendotzen eta egonkortzen lagunduko, elite ekonomiko eta politikoei, beren aberastasuna bermatzeko, gehiengo soziala miseriara kondenatzen dutelako.

Orduan esandakoan berresten gara gaur. Eskubide sozialen eta lan eskubideen likidazioaren kontrako borrokan jarraitzen dugu. Ekinbide sindikala egokitu dugu prekarietatearen aroari aurre egiteko. Lan baldintza kaskarren kontra, pobreziaren eta bazterketaren kontra, krisi sozial larria da LABen lehentasuna eta gure borrokaren ardatza. Ez dugu orain 10 urteko egoerara itzuli nahi. Egoera irauli nahi dugu eta horretarako arazoaren muinera jo dugu: lan baldintza eta eskubideen prekarizazioan oinarritzen den lan mundua, herritarrak babesik gabe uzten dituen eredu soziala eta herriari erabakitzeko eskubidea lapurtu dion eredu politikoa.

Emergentzia sozialeko egoerari erantzun, lan munduan gaur dugun errealitatea irauli eta alternatiben eraikuntzan aurrera egin ahal izateko antolatu da LAB. Antolatu eta aktibatu egin gara, sektore ezberdinetako langileei, prekarioenak kasu, borroka beraren baitara bideak batzeko eskaintza sindikal zehatza eginez.

Borrokak piztuz, mobilizazioak eta gatazkak hauspotuz krisi soziala eta prekarietatea lehen mailako arazo nazional bihurtu behar ditugu, agenda politiko-instituzionalaren erdian jarri. Lan munduaren egoera ez da arazo laboral bat, inposatu zaigun eredu sozioekonomiko basatiaren isla, baizik. Pentsio sistema propio bat, Lan Harremanetako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua, kalitateko zerbitzu publikoak... burujabetza ariketak eskatzen dituzten afera politikoak dira guztiak. Eta arazo politikoei irtenbide politikoak eskatzen dituztenez, borondaterik ez dagoen tokian behartu egin beharko dugu. Gero eta gehiago dira sindikalismoaren funtzio historikoen eraginetik kanpo geratzen ari diren langileak: lan mundutik at, negoziazio kolektiboaren babesik gabe, prestazioetara eta orohar zerbitzu publikoetara sarbidea ukatuta. Errealitate horri aurre egiteko badugu eskaintza sindikal sendo bat, lan munduaren gaurko egoerari erantzuten diona. Martxan gara, eta ez bakarrik salaketa eta erantzun dinamiketan, alternatiba zehatzen defentsan ere bai. Aberastasunaren eta lanaren banaketa dira gakoak: 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduko lanastea, emakumeengana neurri hauek iristeko politika zehatzak; lan osasuna ziurtatzeko neurriak eta euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea. Bost urrats hauek ematen badira langileen egoera goitik behera aldatuko da. Ekintza sindikal gaurkotuarekin eta aktibazioaren bidetik, lan zentruak patronalari eredu soziala eta laborala borrokatzeko eta boterea lehiazteko eremu bilakatzea dugu helburu. Eta ez gaude bakarrik, emakumeekin, gazteekin, pentsiodunekin, eskuz esku dihardugu lan eta bizi baldintza duinen aldeko borrokan.

Sindikalismo independentistak aipatutako erronka horiei guztiei aurre egiteko gai izan behar du. Aldaketa eragiteko baldintzak baditugu: badugu mugimendu sozial eta sindikal indartsu bat, Karta Sozialaren bueltan, Euskal Herrian alternatibak proposatu, saretu eta elikatzeko. Bagara antolatzeke eta borrokatzeke gaitasuna duen Herria.

Baditugu aldaketa prozesua indartzeko, sendotzeko eta azkartzeko baldintzak. Badugu aldaketa sozial eta laboralak behartzeko sindikalismo borrokalari bat.

Baditugu alternatibak, bagara alternatiba.

Maiatzaren Lehenean ere kalean izango gara.

Gora langile borroka! Gora LAB!

